

OPEN COURSE WARE – 09 / 10

Irakasgaia:

IKUS-HEZKUNTZARAKO BALIABIDEAK

Saila: Musika-, Plastika- eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika

Ikastegia: Gasteizko Irakasle Unibertsitate Eskola

Irakasleak:

[Amaia Andrieu Sanz](#)

eta

[Pablo Lekue Rodríguez](#)

- AURKIBIDEA

[1/ IRAKASGAIAREN DATUAK](#)

[2/ IRAKASLEEN DATUAK](#)

[3/ HELBURUAK](#)

[4/ GAITASUNAK](#)

[5/ DESKRIBAPENA](#)

[6/GAI-ZERRENDA ETA MATERIALAK](#)

[7/ METODOLOGIA:](#) **Gaitasunak, zereginak, denborak, espazioak, baliabideak eta gelaren kudeaketa.**

[8/KRONOGRAMA](#)

[9/ ZEREGINAK](#)

[10/ EBALUAZIOA:](#) **Gaitasunak, ebaluazio tresnak, ebaluazio irizpideak.**

[11/ BIBLIOGRAFIA](#)

1/ IRAKASGAIAREN DATUAK:

IKASTEGIA: ...Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola

TITULAZIOAK : ...Lehen Hezkuntzako / Haur Hezkuntzako Irakaslea

IZENA: ...Ikus hezkuntzarako baliabideak

GRADUA/GRADUONDOA: Gradua.....

MAILA: 1. / 2. maila..... **KODEA :** ...

MOTA : ...Derrigorrezkoa

GAURKO IRAKASGAIAREN KREDITU KOPURUA: ...6

ECTS- KO ARAUEN ARABERAKO KREDITU KOPURUA ...5

HIZKUNTZA: ...Euskara

IKASTURTE AKADEMIKOA: ...2008-09

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

http://ocw.ehu.es/gizarte-eta-zuzenbide-zientziak/ikus-hezkuntzarako-baliabideak/Course_listing

2/ IRAKASLEEN DATUAK

IZENA ETA ABIZENAK: ...Pablo Lekue Rodríguez

NAN:

IRAKASGAIA EMATEN DEN IKASTEGIA : ...Gasteizko Irakasle U. E.

SAILA: ...Musika-, Plastika- eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika

TELEFONOA: ...945013415.....

E-MAIL: ...pablo.lekue@ehu.es.....

IZENA ETA ABIZENAK:Amaia Andrieu Sanz

NAN:

IRAKASGAIA EMATEN DEN IKASTEGIA: ... Gasteizko Irakasle U. E

SAILA: ...Musika-, Plastika- eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika

TELEFONOA: ...945 01 4199

E-MAIL: ...amaia.andrieu@ehu.es

3/ HELBURUAK

- 1-Teknologia informatikoen, software askea eta plataforma birtualen erabilera didaktikoak bultzatzea.
- 2-Ikus- eta Plastika-hezkuntza arloko material didaktikoak diseinatzeko teknologia informatikoak erabiltzea.

4/ GAITASUNAK: *Irakasgaiaren berariazko gaitasunak:*

- 1-Ikus lengoaien oinarriko kontzeptuak identifikatzea eta era eraginkorrean erabiltzea hitz-irudizko mezuen interpretazio zein produkzio lanak burutzeko.
- 2-Ikus komunikazioaren ekoizpenak aztertzea ingurune soziokulturala ulertzeko, ikus mezuen hartzaile aktiboa izateko eta haurrengan hitz-irudizko mezuen erabilera kritikoa sustatzeko.
- 3-Lehen Hezkuntzarako plastika eta ikus baliabideak identifikatuz, haiak bereiztea, hautatzea eta era egokian erabiltzea, askotariko ikus mezuak ekoizteko.
- 4-Haurrei zuzendutako hitz-irudizko mezuen helburu, egitura, esangura eta baliabideak aztertuz, haien arteko egokitasuna ebaluatzea arloko material didaktikoa hautatu zein diseinatzeko.

5/ DESKRIBAPENA

Lehen Hezkuntzako 1. mailan egun ematen den *Plastika Adierazpena eta bere Didaktika* ikasgaiaren metodologia teknologia informatikoaren bidez gauzatzen ari da 2008-09 ikasturtean. Esperientzia horretan du oinarria hemen aurkezten den ikasgaiak.

Egitasmo honen helburu orokorra da *Lehen Hezkuntza* eta *Haur Hezkuntzako* Irakasle espezialitateetako ikasleei plastika- eta ikus- baliabideetan eta oro har ikus komunikazioan trebatzeko aukera berriak eskaintzea.

Irakasgaiaren oinarri teorikoak ikus komunikazioaren paradigmak kokatzen dira. Bestetik teknologia informatikoen erabilera lehenesten da oinarriko kontzeptuak barneratu eta eraginkortasunez erabiltzeko.

Lan egiteko prozedura honako hau da:

- 1-Ikasle bakoitzak *Google* plataforman [GMail](#) posta kontu bana irekiko du.
- 2-Bertan *Fotos* izeneko gunean album bana sortuko du, zeregin guztiak bertan kokatzeko.
- 3-Ikasleek album bakoitzaren esteka elektronikoa irakasleari bidaliko diote. Hala, irakasleak ikasle bakoitzaren zereginen jarraipena egin ahalko du.
- 4-Informatika gelan irudiak editatzeko [GIMP](#) aplikazio askea instalatuko dugu zereginak burutzeko.
- 5-Eskola bakoitza bukatu ondoren ikasleek egindako lana euren albumetara igoko dute. Hurrengo eskolan deskargatu eta lan berberarekin jarraitu edo zeregin berri bati hasiera emango diote.
- 6-Irakasgaia burutu ahal izateko *ordenagailu bat eta internet konexioa* nahiko dira. Edonondik egin liteke (etxetik esaterako).

6/ GAI -ZERRENDA ETA MATERIALAK

1. gaia: Kultura, komunikazioa eta ikus komunikazioa: Kultura komunikazioaren ikuspuntutik, Ikus komunikazioa eta Ikus kultura.

2. gaia: *Ikus eremua:*

2.1. Ikus lengoaiaren oinarritzko ikus osagaiak: ehundura, lerroa, forma, argia , kolorea

2.2. konposizioa

3. gaia: Irudia: Irudia eta erreferentea, irudien konbentzioak, irudien komunikazio-ezaugarriak, irudien komunikazio-funtzioak.

4. gaia: Ikus kulturaren azterketa eta interpretazioa: Askotariko ikus mezuak aztertzeko proposamenak. Bi ala hiru dimentsioko irudiak, iragarki inprimatuak eta kartelak, irudi sekuentzia motak.

5. gaia: Lehen Hezkuntzarako plastika baliabideak: Bi dimentsioko teknikak (marraztu, margotu, estanpatu, inprimaketa, collagea) eta hiru dimentsioko teknikak (modelatu eta eraiki). Haiek erabiltzeko prozedurak, materialak, tresnak, euskarriak.

6. gaia: Lehen Hezkuntzarako ikus baliabideak:

6.1. *Fotomuntaketa*

6.2. *Hitz-irudizko mezuak (kartela)*

6.3. *Irudi-sekuentzia*

6.4. *Zine lengoia eta komikia*

7/ METODOLOGIA

GAURKO TITULAZIOAREN KREDITU KOPURUA: ...6.....; ECTS-KO ARAUEN ARABERAKO KREDITU KOPURUA ...5.....

| Gaitasun espezifik oaren zenbakia | Zeregin mota | B/ ERB/ EZB | IKd | IRd | Gela mota/ baliabide materialak | Talde mota | Barkako/ taldeko lana |
|-----------------------------------|---|-------------|-----|-----|--|-----------------|-----------------------|
| 1,2,3 | 1-Ikus lengoaiari buruzko apunteen irakurketa ulerkorra. | EZB | 24 | - | - <i>Baliabideak</i> : Ikasgaiaren apunteak | Banaka | B |
| 1,2,3 | 2-Klase magistrala. Ikasgaiaren oinarritzko kontzeptuen ulerkuntza: 2.1.Ikus komunikazioa. 2.2.Ikus eremua. 2.3.Irudia. 2.4.Ikus kulturaren azterketa eta interpretazioa. 2.5.Lehen Hezkuntzarako Plastika-baliabideak. 2.6.Lehen Hezkuntzarako Ikus-baliabideak. | B | 12 | 24 | - <i>Gela mota</i> : Irudigintza ikasgela - <i>Baliabideak</i> : Ikasgaiaren apunteak. Ordenagailua eta kanoia. | Talde osoa (90) | B |

| Gaitasun espezifik oaren zenbakia | Zeregin mota | B/ ERB/ EZB | IKd | IRd | Gela mota/ baliabide materialak | Talde mota | Barkako/ taldeko lana |
|--|--|-------------------|----------------|-----|--|-----------------|--------------------------|
| 1,3,4 | <p>3-Ikus lengoaia eta plastika eta ikus baliabideei buruzko ariketen bilduma:</p> <p>3.1.Ehundura grafikoak eta materialazkoak sortu eta identifikatzea.</p> <p>3.2.Hainbat lerro erabiliz, argazki bat marrazki bihurtzea.</p> <p>3.3.Forma organikoak, forma geometrikoak eta irudi sekuentzia bat osatzea.</p> <p>3.4.Bilatutako irudietan argi zuzena eta argi zehaztugabea identifikatzea.</p> <p>3.5.Kolore harmonia eta kolore kontrasteak egitea, kolore eskala bat beste irudien zatiez osatzea.</p> <p>3.6.Haurrei zuzendutako irudietan pertzepzio taldekatzeak eta konposizio motak identifikatzea.</p> <p>3.7.Irudiaren ikonotasun/abstrakzio maila eta enkoadratzearen bidez irudi baten esangurak aldatzea.</p> <p>3.8.Eskuorri bat diseinatzea.</p> <p>3.9.Komiki baten oinarriko osagaiak identifikatzea: plano, sekuentzia, kameraren posizioa.</p> | ERB | 20 B 40 EZB | 20 | <p>-Gela mota: Informatika ikasgela</p> <p>-Baliabideak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ■ -Ordenagailua ■ -Irudiak editatzeko GIMP software askea ■ -Irudiak biltzeko GOOGLE FOTOS doako plataforma ■ -EHUko MOODLE plataforma | Talde osoa (90) | B |

| Gaitasun espezifikoaren zenbakia | Zeregin mota | B/ ERB/ EZB | IKd | IRd | Gela mota/ baliabide materialak | Talde mota | Barkako/ taldeko lana |
|----------------------------------|---|-------------|----------------|-----|--|----------------------|-----------------------|
| 2,3,4 | <p>4-Mintegia. Ikus lengoiaia eta plastika eta ikus baliabideei buruzko praktikak:</p> <p>4.1.Haurrentzako hitz-irudizko mezu bat hautatu eta aztertzea.</p> <p>4.2.Marraztu, margotu, collage, eraiki eta modelatu tekniken eta tresnen erabilpen egokiak.</p> | ERB | 10 B 11 EZB | 45 | <p>-<i>Gela mota:</i> Informatika ikasgela</p> <p>-<i>Baliabideak:</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ordenagailua ● Irudiak editatzeko GIMP software askea ● Irudiak biltzeko GOOGLE FOTOS doako plataforma ● EHUko MOODLE plataforma | Talde txikia (15-20) | B/T |
| 1,2,3,4 | 5-Tutoretza: Ikus lengoaiari eta plastika eta ikus baliabideei buruzko ariketen ikuskatzea | B | 6 B | 135 | <p>-<i>Gela mota:</i> Bulegoa</p> <p>-<i>Baliabideak:</i> Ordenagailua</p> | Talde txikia (1-4) | B/T |
| 1,2 | <p>6-Azterketa. Gaitegiari buruzko idatzizko proba:</p> <p>6.1.Zereginak burutu dituen (1, 2 eta 3. gaiak).</p> | B | 2 B | 2 | - <i>Gela mota:</i> Ikasgela | Talde osoa (90) | B |
| 1,2,3,4 | 6.2 Zereginak burutu ez dituen (gaitegi osoa). | | | | | | |

8/ KRONOGRAMA

| 09- 10 ikasturtea. 2. lauhilabetea | | | | | ZER/NOIZ |
|---|---|---|---|---|---|
| A | A | A | O | O | |
| OTSAILA 15 16 17 18 19 1. astea | | | | | -17 :Irakasgaiaren programaren aurkezpena: helburuak, edukiak, ebaluazioa. -20:Ikasmaterialen aurkezpena. Zereginen aurkezpena |
| 22 23 24 25 26 2. astea | | | | | -24 :Kultura, komunikazioa eta ikus komunikazioa -27 :Ikus eremua. Oinarrizko osagaiak: ehundura |
| MARTXOA 1 2 3 4 5 3. astea | | | | | -3: Zereginak egiteko saioa -6:Oinarrizko osagaiak: Lerroa |
| 8 9 10 11 12 4. astea | | | | | -10 :Lanak egiteko saioa. -13:Oinarrizko osagaiak: Forma |
| 15 16 17 18 19 5. astea | | | | | -17 :Egindako zereginak aurkezteko 1. epemuga. -20:Oinarrizko osagaiak: Argia – Kolorea |
| 22 23 24 25 26 6. astea | | | | | -24 :Zereginak egiteko saioa. -27:Oinarrizko osagaiak: Konposizioa |
| 12 13 14 15 16 7. astea | | | | | APIRILA -31 :Zereginak egiteko saioa. -3:Irudia |
| 19 20 21 22 23 8. astea | | | | | -7 :Egindako lanak aurkezteko 2. epemuga. -10:Ikus kulturaren azterketa eta interpretazioa. |
| 26 27 28 29 30 9. astea | | | | | -21 :1. atala bukatzeko azken eguna. Web orria egiteko 1. saioa -24:Lehen Hezkuntzarako plastika baliabideak. |
| MAIATZA 3 4 5 6 7 10. astea | | | | | -5 :Esku orria egiteko 2. saioa -8: Lehen Hezkuntzarako ikus baliabideak: Fotomuntaketa eta kartela. |
| 10 11 12 13 14 11. astea | | | | | -12: Web orria egiteko azken eguna. Komikia aztertzeke 1. saioa. -15: Lehen Hezkuntzarako ikus baliabideak: Irudi sekuentzia (I) |
| 17 18 19 20 21 12. astea (azken astea) | | | | | -19 :Komikia aztertzeke 2. saioa -22:Lehen Hezkuntzarako ikus baliabideak: Irudi sekuentzia (II). |

9/ ZEREGINAK

1. ATALA: IKUS KULTURA, IKUS EREMU, IKUS KULTURAREN INTERPRETazio ETA PLASTIKA BALIABIDEEI BURUZKO ZEREGINAK. (4 puntu)

- 1. atala egiteko erabili beharreko gaiak honako hauek dira: 1. (ikus kultura), 2. (ikus eremua), 3. (irudia), 4. (ikus kulturaren interpretazioa) eta 5. (lehen hezkuntzarako plastika baliabideak)
- Ikasle bakoitzak <http://www.google.com/> izeneko gunean *GMail* kontu bat ireki behar du, argazki album bat sortu eta bertara egindako ariketa guztiak, ondo identifikatuta, igo.
- Zeregin bakoitza ordenadoreaz burutuko da, GIMP doako programaz, eta aipatu helbidean eskegiko da.
- Ariketa bakoitza dokumentu bana izango da. Neurriak: 600X400 mm. Bereizmena: 72 p./h. Formatua: JPEG.
- Emandako irudiak bakar batean konbinatu (hautatu, moztu eta itsatsi) koherentzia espaziala mantenduz (*gutxienez hiru sakontasun planoetan antolatuta*). Lortutako irudia erabiliko da hurrengo zereginetan (aurrerantzean "bukaerako irudia" deituko diogu)

1-Ehundura (0,75)

Bukaerako irudiarekin, bi saio desberdin burutuko dira:

1.1-argazkiko elementuak ehundura grafiko organiko betez

1.2-ehundura grafiko geometriko betez

Argazki bakoitzaren azpian ehundura mota idatziz identifikatu eta tresnak eta prozedurak laburki seinatu.

- *Ebaluazio irizpideak:*
 - Ehundura organiko eta geometrikoak bereiztea
 - Hautapen zehatzak egitea

2-Lerroa (0,5)

Argazkia marrazki bihurtu

Bukaerako irudiaren gainean marraztu behar da (arkatza, pintzela) lau saio desberdin burutuz.

Hasi baino lehen geruza berri zuria sortuko da saio bakoitzean

Geruza berri horretan azpiko irudia kalkatuko da lau saio desberdinetan:

2.1-Esku hutsez. *Tresna:* arkatza, pintzela

2.2.-Lerro zuzenez. *Tresna:* arkatza, pintzela (Shift izeneko tekla sakatuta)

2.3-Bidea (ruta) izeneko tresnaz.

2.4-Norberak diseinatutako pintzel batez.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- Lerro desberdinak zehaztasunez erabiltzea

- Hautapen zehatzak egitea

3-Forma (0,75)

3.1-Forma organikoa (0,25). Hiru forma organiko sortu honako prozedura hauek erabiliz:

3.1.1-*Tinta potea tresna*: modua aldatu (normala, disolbatu, atzean...) eta pintzel mota zirkularra.

3.1.2-*Arkatza tresna*: forma organikoa marraztu, kopiatu eta, konbinatuz, beste konplexuago bat irudikatu.

3.1.3-*Aerografoa*: forma organiko bat paperean irudikatu tresnaren aukerak aldatuz (modua, presioa, brotxa...)

- *Ebaluazio irizpideak:*

- GIMP programaren tresnak zehaztasunez erabiltzea

- Forma organiko konplexuak eratzea

3.2- Oinarrizko forma geometriko baten barruko zatiketak (0,25). *Prozedura*:

- Oinarrizko forma geometriko bat marraztu eta beltzez margotu.

- Haren eskuinean kopiatu eta barruko zatiketak irudikatu (tresna: pintzela / kolorea: zuria)

- Zatiak kopiatu (Ctrl. C), eta ondoan itsatsi (Ctrl. V), eta lekuz aldatu forma konplexuagoa lortzeko.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- GIMP programaren tresnak zehaztasunez erabiltzea

- Forma geometriko konplexuak eratzea

3.3- Irudi sekuentzia (0,25)

Bi formen bilakaera sekuentziatua irudikatu 6 bineta erabiliz. *Prozedura*:

- Sareta konfiguratu (Imagen-configurar rejilla).

- (Baloreak: aspecto liso / Espaciado: 40X40 pixel.)

- Sareta erakutsi (ver-mostrar rejilla)

- Marraztu sei laukizuzen berdin (saretaren arabera: 12X7), 3 goian eta 3 behean

- Bi forma 1. laukizuzenaren barruan irudikatu.

- Bien eraldaketa sekuentziatua beste karratuetan antolatu.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- GIMP programaren sareta egoki konfiguratzea

- Irudi sekuentzia konplexua eta koherentea osatzea.

4-Argia (0,5)

4.1-Argi zuzena (0,25): Argi zuzena duen irudi bat bilatu eta honako datuak idatzi:

- Argiaren norabidea.

- Itzal motak.

- Argiztapenak irudiari gehitzen dizkion esangurak.

4.2-Argi zehaztugabea (0,25): Argi zehaztugabea duen irudi bat bilatu eta honako datuak idatzi:

- Argiaren norabidea.

- Itzal motak.

- Argiztapenak irudiari gehitzen dizkion esangurak.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- Argi zuzena eta zehaztu gabea kontzeptuak bereiztea

- Berezko itzal eta itzal proiektatua kontzeptuak bereiztea

- Irudien argiztapenaren interpretazioa egitea.

5-Kolorea (0,5)

5.1- Egitura, modulua eta kolorea (0,25)

- Sareta konfiguratuta eta erakutsi (ikus 3.3 irudi sekuentzia)

- Oinarritzko egitura bat marraztu (karratuarena ala triangelu aldeberdinarena).

- Egituraren barnean modulu bat sortu eta kopiatu

- Moduluak margotu kolore harmonia ala kolore kontraste bat lortzeko.

- Erabilitako egitura mota eta harmonia edo kontraste mota idatziz identifikatu.

5.2- Kolore eskala (0,25)

- Gutxienez 5 tonu aldaketa dituen kolore eskala bat osatu irudi desberdinetatik hartutako zatiekin.

- Erabilitako eskala mota idatziz identifikatu.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- Sareta ondo konfiguratzea

- Modulu eta egitura bereiztea eta zehaztasunez erabiltzea

- Harmonia eta kontrastea kontzeptuak bereiztea

6-Konposizioa (0,5)

6.1- Pertzepzio taldekatzeak (0,25)

- Forma taldekatzeak hautematen diren hurrei zuzendutako irudi bat hautatu eta idatziz identifikatu.
- Kolore taldekatzeak hautematen diren hurrei zuzendutako irudi bat hautatu eta idatziz identifikatu.

6.2- Konposizio motak (0,25)

- Konposizio estatikoa duen hurrei zuzendutako irudi bat hautatu eta identifikatu.
- Konposizio dinamikoa duen hurrei zuzendutako irudi bat hautatu eta identifikatu.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- Pertzepzio taldekatzeak bereiztea
- Konposizio dinamiko eta estatikoa kontzeptuak identifikatzea eta bereiztea

7-Irudia (0,5)

7.1- Irudiaren ikonotasuna eta abstrakzioa (0,25)

Objektu edo motibo berbera irudikatzen duten hiru irudi hautatu eta dokumentu berean ondoz ondo kokatu:

- Argazkia.
- Marrazki ikonikoa.
- Marrazki abstraktua.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- Ikonotasun maila desberdinen identifikazio zuzena.

7.2- Irudiaren enkoadratzea (0,25)

Irudi baten esangura aldatu bere jatorrizko enkoadratzea aldatuz:

- Irudi bat hautatu
- Irudiaren zati bat hautatu eta beste dokumentu batera eraman haren jatorrizko esangura aldatuz.

- *Ebaluazio irizpideak:*

- Irudien esangurak **enkoadratzearen** bidez aldatzea

2. ATALA: IKUS BALIABIDEAK. WEBGUNE BATEN ORRI NAGUSIA (3 p.)

Lan hau egiteko erabili beharreko gaiak honako hauek dira: 2. (ikus eremua), 3. (irudia), 5. (lehen hezkuntzarako plastika baliabideak) eta 6. (lehen hezkuntzarako ikus baliabideak: kartela).

Web gunea diseinatzeko arauak:

- Ohiko web nabigatzaileek irakur lezaketen dokumentu informatikoa diseinatu beharko da.
- Bertan irudi eta testu (menu) bat uztartuko dira.
- Irudia egiteko gutxienez bi irudi konbinatu beharko dira
- Menua honako hau izan liteke:

IKUS HEZKUNTZA

- 1.Kultura, komunikazioa eta ikus komunikazioa
- 2.Ikus Eremua:
 - 2.1.Oinarrizko ikus osagaiak
 - 2.2. Konposizioa
- 3.Irudia
- 4.Ikus kulturaren azterketa eta interpretazioa
- 5.Lehen Hezkuntzarako Plastika- eta Ikus- baliabideak
- 6.Eranskinak

Neurria: 600X400 mm.

Esku orriaren ebaluazioa

Esku orriaren ulergarritasuna (0,75 p.)

- Testuaren edukia: 0,25
- Irudiaren edukia: 0,25
- Testuaren eta irudiaren edukien arteko osagarritasuna: 0,25

Esku orriaren antolaketa espazio formatuan (0,75 p.)

- Testuaren ezaugarri grafikoak (irakurteraztasuna: letra mota, neurria, kolorea): 0,25
- Irudiaren ikus ezaugarriak (teknika, ikus osagaiak, komunikazio ezaugarriak): 0,25
- Konposizioa (testuaren eta irudiaren kokapenak espazio formatuan, koherentzia espaziala): 0,25

Teknikaren erabilpena: Ondo moztutako eta konbinatutako formak (1,5 p.)

3. ATALA: IKUS BALIABIDEAK. KOMIKIA (2 p.)

Lan hau egiteko 6. gaiari begiratu beharko zaio (lehen hezkuntzarako ikus baliabideak: kontagintza ikonografikoa).

-Komiki bat aukeratu: gutxienez bost bineta eta 3 sekuentzia.

-Digitalizatu eta bertan honako kontzeptu hauek bineta bakoitzean identifikatu eta seinalatu beharko dira:

- sekuentzia zenbakia
- plano zenbakia eta plano mota
- kameraren posizioa

-Errakuntza bakoitzarengatik 0,25 puntu kenduko zaio atalaren gehienezko puntuazioari.

Hizkuntzaren erabilpena (0,5): Sintaxia, hiztegia eta hiztegi teknikoa.
Prozesu osoa ondo burutzea (0,5): Ideiatik interneten eskegi arte .

10/ EBALUAZIOA

| Gaitasun espezifikoaren zenbakia | Ebaluazio tresna | Ebaluazio irizpideak | Azken notaren portzentaia |
|----------------------------------|---|--|---------------------------|
| 1,3,4 | a) Ikus lengoia eta plastika eta ikus baliabideei buruzko ariketen bilduma. | <p>-(1)*Hautatutako hitz-irudizko mezueta ikus osagaien (ehundura, lerroa, forma, argia, kolorea) eta konposizio motaren identifikazio zuzena balioetsiko dira.</p> <p>-(1)Ekoizpen lanetan ikus osagaiak (ehundura, lerroa, forma, argia, kolorea) eta konposizio motaren erabilpen eraginkorra balioetsiko dira.</p> | a) %40 |
| 2,3,4 | b) Ikus lengoia eta plastika eta ikus baliabideei buruzko praktikak. | <p>-(2)Inguruneke ikus- komunikazioaren ekoizpenen (argazkiak, marrazkiak, iragarkiak, komikiak, marrazki bizidunak, pelikulak) testuinguruaren kokatze eta deskribatze sakon eta zehatza balioetsiko da.</p> <p>-(2)Ikus- komunikazioaren ekoizpenetan oinarritutako interpretazio autonomo eta kritikoak eratzea balioetsiko da.</p> | b) %20 |
| 1, 2 | c) Azterketa: c1) Zereginak burutu dituenak | <p>-(3)Ikus- mezuen ekoizpenerako oinarritzko bi (marraztu, margotu, estanpatu, collage) eta hiru (modelatu, eraiki) dimentsioko tekniken, prozeduren, materialen, tresnen eta euskarrien bereizketa, hautaketa eta erabilpen zuzen eta egokia balioetsiko dira.</p> | c1) %40 |
| 1,2,3,4 | c2) Zereginak burutu ez dituenak | <p>-(3)Ikus- baliabideen (fotomuntaketa, hitz-irudizko mezuak, kontagintza ikonografikoa eta prozedurak, materialak, tresnak, euskarriak) bereizketa, hautaketa eta erabilpen zuzen eta egokia balioetsiko dira.</p> <p>-(4)Haurrei zuzendutako hitz-irudizko mezuen (iragarkiak, komikiak, marrazki bizidunak, pelikulak) helburuen, egituren, esanguren eta baliabideen (teknikak, prozedura, material, tresnak, euskarriak) identifikazio zuzena balioetsiko da.</p> <p>-(4)Haurrei zuzendutako hitz-irudizko mezuen helburu, egitura, esangura eta baliabideen arteko erlazioei buruzko ebaluazioaren egokitasuna balioetsiko da.</p> <p>*: parentesietako zenbakia gaitasun zenbakari dagokio</p> | c2) %100 |

11/ BIBLIOGRAFIA.

11-1: OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

11-2: SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

11-3: WEB-GUNE INTERESGARRIAK

11-4/ IRAKASGAIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDIZKARIAK

11-1: OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Hernández, Fernando (2000). *Educación y Cultura Visual*. Bartzelona: Octaedro.

Lazotti, Lucia (1983). *Comunicación visual y escuela*. Bartzelona: Gustavo Gili.

Mallas, Santiago (1979). *Medios audiovisuales y pedagogía activa*. Bartzelona: Ceac.

Moles, Abraham A. *Diccionario de la comunicación*. Bilbo: Mensajero.

Munari, Bruno (1973). *Diseño y comunicación visual*. Bartzelona: Gustavo Gili.

Wong, Wucius (1992). *Fundamentos del diseño bi- y tri-dimensional*. Bartzelona: Gustavo Gili.

11-2/ SAKONTZEKO BIBLIOGRAFIA

Cheshire, David (1979). *Manual de cinematografía*. Madril: Blume.

Eco, Umberto (1977). *Tratado de semiótica general*. Bartzelona: Lumen.

Germani-Fabris (1973). *Fundamentos del proyecto gráfico*. Bartzelona: Gustavo Gili.

Maltese, Corrado (koord.) (1999). *Las técnicas artísticas*. Madril: Cátedra.

Marcolli, Atilio (1978). *Teoría del campo*. Madril: Xarait eta Alberto Corazón.

Moragas Spa, Miquel (1981). *Teorías de la comunicación*. Bartzelona: Gustavo Gil

11-3 / WEB-GUNE INTERESGARRIAK

<http://www.artekids.com.ar/>

<http://www.arteymercado.com/menudoarte/index.html>

http://www.artium.org/euskera/info_presentacion.html

<http://www.guggenheim-bilbao.es/euskera/>

<http://www.hikhasi.com/>

<http://www.museobilbao.com/>

<http://my.opera.com/artesvisuales/blog/>

<http://www.ucm.es/info/mupai/> (Museo Pedagógico de Arte Infantil)

<http://www.zernola.net/>

11-4/ IRAKASGAIAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ALDIZKARIAK

Agirre, Imanol (1997). Ikonoteka baten antolakuntza (I), *Hik Hasi*, 22. zk.: 40-42 or.; Ikonoteka baten antolakuntza (II), *Hik Hasi*, 23. zk.: 39-42 or.

Agirre, Imanol (1998): Mural kromatikoa (I). *Hik Hasi*, 24. zk.: 39-42 or.; Mural kromatikoa (II). *Hik Hasi*, 25. zk.: 43-46 or.

Agirre, Imanol (1998): Zer da eskultura? (I). *Hik Hasi*. 26. zk.: 37-42 or.; Zer da eskultura? (II). *Hik Hasi*. 27. zk.: 39-42 or.; Zer da eskultura? (III). *Hik Hasi*. 28. zk.: 37-42 or.

Agirre, Imanol (1998). Arte Hezkuntzarako baliabideak Interneten. *Hik Hasi*, 29. zk., 39-42 or.

Haur-gaztetxoeren marrazki ekoizpenaren bilakaera. 2. monografikoa (1997ko apirila). *Hik Hasi*, 17. zk.

Monográfico sobre el cine en la escuela (1978). *Cuadernos de Pedagogía*, 38. zk.

Monográfico sobre cine y escuela (1995). *Cuadernos de Pedagogía*.

Preciado, Txema (1989). Errealitatea irudikatzekeo trebetasun falta eta artearekiko jarrera direla, proposamen bat. *Tantak* (Hezkuntza Aldizkaria), EHUko Argitalpen Zerbitzua. 2. zenbakia: 101-116 or.

Preciado, Txema (1992). Koloreari buruzko irakaskuntzaren egokitasuna Euskalerriko testuinguruan. *Tantak* (Hezkuntza Aldizkaria), EHUko Argitalpen Zerbitzua. 8. zk.: 19-45 or.

Preciado, Txema (1997). Begiradaxo bat marrazketa librearen errealitateari. *Tantak* (Hezkuntza Aldizkaria), EHUko Argitalpen Zerbitzua. 18. zk.: 93-109 or.

Santiago, M. Teresa (1993). Taller de imagen en educación infantil y primaria, 1. ciclo. Colegio Público Santa María, As Pontes (Coruña). *APUMA (Revista de la Asociación de Profesores/as Usuarios/as de Medios Audiovisuales)*, 4. zk.: 21-23 or.